DIRULAGUNTZA-PROGRAMEI BURUZKO EBALUAKETA 2025

OSALAN

- Laneko arriskuen prebentzioko ikerketa-proiektueak 2
- 2025 urtean prebentzioko ordezkarien oinarrizko prestakuntza emateko diru-laguntza 4
- Lan-arriskuen prebentzioaren esparruan jarduerak egiteko dirulaguntza 6

1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Laneko arriskuen prebentzioko ikerketa-proiektueak

2.- Araua

EBAZPENA, 2024ko abenduaren 13koa, Osalan-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundeko zuzendari nagusiarena, laneko segurtasun eta osasunaren arloko ikerketa-proiektuetarako laguntzen deialdia egiten duena.

EBAZPENA, 2025eko maiatzaren 26koa, Osalan-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundeko zuzendari nagusiarena, zeinaren bidez argitaratzen baitira laneko arriskuen prebentzioaren arloko jardueretarako dirulaguntzak emateko 2025. urteko deialdiaren emaitzak.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAAri Hiperesteka)

EBAZPENA, 2024ko abenduaren 13koa, Osalan-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundeko zuzendari nagusiarena, laneko segurtasun eta osasunaren arloko ikerketa-proiektuetarako laguntzen deialdia egiten duena.

2405984e.pdf

https://www.euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2025/01/2500269e.pdf

EBAZPENA, 2025eko maiatzaren 26koa, Osalan-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundeko zuzendari nagusiarena, zeinaren bidez argitaratzen baitira laneko arriskuen prebentzioaren arloko jardueretarako dirulaguntzak emateko 2025. urteko deialdiaren emaitzak.

https://www.euskadi.eus/bopv2/datos/2025/06/2502577e.pdf

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Deialdia honen xedea da honako proiektuak finantziatzea dirulaguntzak norgehiagoka-erregimenean:

- Laneko segurtasunaren eta osasunaren arloko ikerketa-proiektuak.
- Saf€ra esparruko ikerketa-proiektuak, 2023ko Saf€ra deialdi bateratuari dagozkionak.

Helburua: laneko arriskuen prebentzioaren arloko ikerketa-, garapen- eta berrikuntza-programak egitea, sustatzea eta garatzea.

Norentzat: Euskal Autonomia Erkidegoan jarduera ekonomikoa sortzen duten pertsona juridikoentzat.

Dirulaguntzaren gehieneko zenbatekoa: diruz lagun daitekeen aurrekontuaren % 100, gehienez 50.000 €.

Gauzatzeko aldia eta epea: dirulaguntzaren xede diren jarduerak bi urteko epean egin beharko dira, emakidaren jakinarazpen ofiziala jasotzen den egunaren biharamunetik kontatzen hasita.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza- programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

2025eko aurrekontuan epigrafe honetan 237.500 € zeuden ordainketa-kreditu gisa, 2026rako 112.500 €-ko konpromiso-kredituekin eta 2027rako 50.000 €-rekin. Laneko Segurtasun eta Osasunaren arloko ikerketa-proiektuetarako laguntzen 2025 deialdian, proiektu bakarra aurkeztu zen, eta ezezkoa eman zitzaion, ez zuelako lortu Osalan-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundeko zuzendari nagusiaren 2024ko abenduaren 13ko Ebazpenaren 17. artikuluan eskatutako gutxieneko puntuazioa. Ebazpen horren bidez, laneko segurtasun eta osasunaren arloko ikerketa-proiektuetarako laguntzen deialdia egin zen.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

Adierazlea	Aurreikuspena	Emaitza
Diruz lagundutako proiektuen kopurua	5	5
Beste enpresa batzuei aplika dakizkiekeen diruz lagundutako proiektuen kopurua	5	5
Osalanen webgunean argitaratutako proiektuetara egindako bisiten kopurua	500	X

1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

2025 urtean prebentzioko ordezkarien oinarrizko prestakuntza emateko diru-laguntza

2.- Araua

125/2018 DEKRETUA, uztailaren 30ekoa, zeinaren bidez ezartzen baitira EAEko lantokietako edo enpresetako prebentzio-ordezkariak trebatzeko oinarrizko prestakuntza ematen duten entitate publiko nahiz pribatuak diruz laguntzeko programaren oinarri orokorrak (EHAA 149 zk., 2018ko abuztuaren 3koa).

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAAri Hiperesteka)

125/2018 DEKRETUA, uztailaren 30ekoa, zeinaren bidez ezartzen baitira EAEko lantokietako edo enpresetako prebentzio-ordezkariak trebatzeko oinarrizko prestakuntza ematen duten entitate publiko nahiz pribatuak diruz laguntzeko programaren oinarri orokorrak (EHAA 149 zk., 2018ko abuztuaren 3koa).
EBAZPENA, 2024ko abenduaren 9koa, Osalan-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundeko zuzendari nagusiarena. Honen bidez, 2025. urterako dirulaguntzen deialdia egiten da, ekitaldi honetan EAEko enpresetako edo lantokietako prebentzio-ordezkariak trebatzeko oinarrizko mailako prestakuntza ematen duten entitate publiko zein pribatuentzat.

EBAZPENA, 2026ko otsailaren 3koa, Osalan-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundeko zuzendari nagusiarena, zeinaren bitartez argitara ematen baita, herritar guztiak jakinaren gainean egon daitezen, 2025ean zer dirulaguntza eman zaizkien ekitaldi horretan Euskal Autonomia Erkidegoko lantokietako edo enpresetako prebentzio-ordezkariak trebatzeko oinarrizko prestakuntza eman duten entitate publiko nahiz pribatuei.

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

EAEko prebentzio-ordezkariek (PO) izan behar duten oinarrizko mailako prestakuntza emateko diru-laguntzak ematea. Prestakuntza bi zati izango ditu: lehenengoa 16 ordukoa izango da, arau-prestakuntzari buruzkoa, eta bigarrena 32 ordukoa, prestakuntza teknikoari buruzkoa.
OSALANen aurrean egiaztatutako hezkuntza-sistemak aitortutako eta homologatutako zentroek edo erakunde sindikalek edo prebentzio-zerbitzuek ematen duten prestakuntza. Hori guztia Osasun Alorreko eta Laneko Arriskuak Prebenitzeko Alorreko Lanbide Arteko Akordioa ezarri bezala.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza- programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

Deialdiaren zenbatekoa: 300.000 €, gauzatutakoa: 249.180,20 €.
2025ean 102 ikastaro egin dira guztira, 1.615 PO prestatu dira, horietatik 997 gizonak dira eta 618 emakumeak, eta 249.180,20 € lagundu dira diruz.

Arau-arloan: 43 ikastaro egin dira guztira, horietatik 9 Araban (139 PO eta 13.955,10 €-ko diru-laguntza), 21 Bizkaian (336 PO eta 31.147,53 €) eta 13 Gipuzkoan (224 PO eta 20.146,89 €).

Arlo Teknikoan 59 ikastaro egin dira guztira, horietatik 9 Araban (144 PO eta 27.973,06 euroko diru-laguntza), 30 Bizkaian (491 PO eta 96.617,05 €) eta 20 Gipuzkoan (281 PO eta 59.340,59 €).

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

Adierazlea	Aurreikuspena	Emaitza
- Arauen arloko prestakuntza-ekintzak diruz laguntzea.		
1. Gauzatutako ekintzen kopurua.	55	43
2. Ekintzan parte hartzen duten pertsonen kopurua.	800	699
- Arlo teknikoko prestakuntza-ekintzak diruz laguntzea		
1. Gauzatutako ekintzen kopurua.	50	59
2. Ekintzan parte hartzen duten pertsonen kopurua.	700	916

1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Lan-arriskuen prebentzioaren esparruan jarduerak egiteko dirulaguntza

2.- Araua

TES/864/2023 Agindua, uztailaren 21ekoa, laneko arriskuen prebentzioaren arloko jarduerak egiteko dirulaguntzak norgehiagoka bidez emateko oinarri arautzaileak onartzen dituena.
EBAZPENA, 2024ko abenduaren 17koa, Osalan-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundeko zuzendari nagusiarena, zeinaren bidez iragartzen baita lan-arriskuen prebentzioaren arloko jardueretarako dirulaguntzak emateko 2025. urteko deialdia.
EBAZPENA, 2025eko maiatzaren 26koa, Osalan-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundeko zuzendari nagusiarena, zeinaren bidez argitaratzen baitira laneko arriskuen prebentzioaren arloko jardueretarako dirulaguntzak emateko 2025. urteko deialdiaren emaitzak.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAAri Hiperesteka)

Orden TES/864/2023, de 21 de julio, por la que se aprueban las bases reguladoras de la concesión de subvenciones, en régimen de concurrencia competitiva, para la realización de actividades en el ámbito de la prevención de riesgos laborales conforme a la Ley 31/1995, de 8 de noviembre, de Prevención de Riesgos Laborales

EBAZPENA, 2024ko abenduaren 17koa, Osalan-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundeko zuzendari nagusiarena, zeinaren bidez iragartzen baita lan-arriskuen prebentzioaren arloko jardueretarako dirulaguntzak emateko 2025. urteko deialdia
https://www.euskadi.eus/bopv2/datos/2024/12/2405985e.pdf

EBAZPENA, 2025eko maiatzaren 26koa, Osalan-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundeko zuzendari nagusiarena, zeinaren bidez argitaratzen baitira laneko arriskuen prebentzioaren arloko jardueretarako dirulaguntzak emateko 2025. urteko deialdiaren emaitzak.
https://www.euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2025/06/2502577e.pdf

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Laneko arriskuen prebentzioaren arloan sektore arteko edo sektoreko ekintzak egitea, Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko azaroaren 8ko 31/1995 Legearen arabera, Euskal Autonomia Erkidegoan kokatutako lantokietan zerbitzuak ematen dituzten enpresa eta langileei zuzenduta.
1. ekintza: Langileen eta enpresaburuen artean laneko arriskuen prebentzio-ekintzaren printzipioak edo printzipio horiek aplikatzeko arau zehatzak zabaltzea.
2. ekintza: prebentzio-jardueren aplikazio praktikoaren eta materialaren ondoriozko arazoak aztertzeko eta konpontzeko laguntza teknikoa.

3. ekintza. Produkzio-jardueraren sektore eta azpisektoreetan eman daitezkeen programen metodoak eta edukiak diseinatzean datzan prestakuntza, batez ere funtsean enpresa txikiz osatuta daudenetan.
4. ekintza: laneko arriskuen prebentzioari buruzko araudia betetzen dela sustatzea.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza- programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

2025. urtean 581.484,14 euro bideratuko dira deialdi honetara. Guztira, 581.259,80 euro eman ziren.
21 dirulaguntza-eskaera aurkeztu ziren; horietatik 10 onartu egin ziren eta 11 baztertu. Baztertutako 13 proiektuetatik, 7 erakunde eskatzailek ez zituzten erakunde onuraduntzat hartzeko baldintzak betetzen, aurkeztutako proiektuetatik 2k ez zuten lortu dirulaguntza emateko 2024ko abenduaren 17ko Ebazpenean ezarritako gutxieneko puntuazioa, eta beste bi proiektuei kreditua agortzeak eragin zien.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

Adierazlea	Aurreikuspena	Emaitza
Diruz lagundutako proiektuen kopurua	--	10

* 2025 urtean, Dirulaguntzen Plan Estrategikoan ez zegoen dirulaguntzen ildo horri buruzko adierazlerik.